

OINARRIZKO EKINTZAK

Gure euskarriak diseinu polit eta erakargarria du, aluminiozkoak egingo ditugu eramangarriagoak izateko eta gutxiago pisatzeko. 3 kolore ezberdinetakoak egingo ditugu eta nahi izanez gero kolore gehiagokoak egin ditzakegu.

Gure enpresaren ekintza nagusia euskarri hauek produzitzea da, euskarri hauek duten lan guztia guk egiten dugu, lehengaiak erosten ditugu eta guk lantzen ditugu azken produktura iritsi arte.

Prozesua:

- Lehen gauza lehengaiak erostea da, hauek iristen direnean lanean hasiko gara.
- Hasteko txapa neurrian moztuko dugu
- Moztu ondoren zulozailura joango gara eta han zuloak egingo dizkiogu, zulo honetatik kargatzailea pasa dadin.
- Plegadoran launaka edo bosnaka jarriko ditugu eta tolesturak egingo dizkiogu, txapak euskarri forma hartu dezan arte.
- Hau eginda daukagunean rotaflexarekin rebarbak eta euskarriak eduki ditzaken puntak kenduko dizkiogu.
- Behin dena bukatuta daukagunean margotu egingo ditugu, kolore ezberdinetakoak margotuko ditugu.
- Margotu ondoren lehortzen utziko ditugu eta euskarrirenbat eskatzen digutenean kaxa batean sartu eta garraiorako prestatuko dugu.

Gure enpresak eduki ditzakeen arazo handiena ekoiztutako guztia saltzea da, gure euskarriak errez egiten dira eta ondorioz euskarri asko egiteko posible gara baina gero euskarri hauek saltzeko gai izan behar gara. Horretarako publizitatea, gure web orria eta sare sozialen erabilera handia egingo dugu, gure euskarriak eta gure marka ezagutzera eramateko.

